



**GAINDITU DEZAGUN ERABAT OHIKO**

**BIHURTU DEN HAURREN POBREZIA**



**Save the Children**

Berreraikuntzarako politika publikoen proposamenak haurren ikuspegitik.  
Euskadiko eranskina.

2021eko martxoa

Argitaratzailea:

**Save the Children Espainia**  
**2021\_martxoa**



**savethechildren.es**

## Edukia

1.	Sarrera.....	4
2.	Europako Funtsak aukera gisa.....	5
3.	Gizarte-babesa eta enplegua .....	6
3.1.	Testuingurua.....	6
3.2.	Ezarritako neurriak .....	7
3.3.	Gure proposamenak .....	9
3.4.	Inplementazioa.....	11
4.	Hezkuntza .....	14
4.1.	Testuingurua.....	14
4.2.	Ezarritako neurriak .....	15
4.3.	Gure proposamenak .....	17
4.4.	Inplementazioa.....	19
5.	Osasuna .....	20
5.1.	Testuingurua.....	20
5.2.	Ezarritako neurriak .....	21
5.3.	Gure proposamenak .....	23
5.4.	Inplementazioa.....	24
6.	Etxebizitza eta pobrezia energetikoa.....	26
6.1.	Testuingurua.....	26
6.2.	Ezarritako neurriak .....	27
6.3.	Gure proposamenak .....	28
6.4.	Inplementazioa.....	29
7.	Metodologiari buruzko oharra .....	31



## 1. SARRERA

2020ko martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu zenetik iragan diren hamabi hilabeteak gure historia hurbileko zailenak izan dira. Pandemiak osasunean eragin dituen triskantzez gain, eta kontuan hartuta, betiere, adierazpide gordinena utzi dituen hildakoak izan direla, COVID-19ak eragin suntsitzaileak ekarri dizkio ekonomiarari ere.

Epidemiologikoki pandemiaren eragin larrienak jasan ez dituzten arren, haurrak eta nerabeak bihurtu daitezke pandemiaren biktima nagusiak, ikuspegi sozialetik. Beren ardurapean adingabeak dituzten familietan (pobrezia-arrisku handiena pairatzen dutenak) diru-sarrerak eteteak eta, horrekin batera, prestakuntza-prozesuak egiteko zailtasunek nahiz estres-egoerak, ziurgabetasunak edota etxe askotako indarkeriak arriskuan jarri dituzte haurren duintasuna, ongizatea eta izan dezaketen garapena.

2020ko martxotik, egoera zaurgarrian dauden familietako haur eta nerabeen bizitzan COVID-19aren pandemiak zer eragin dituen aztertzen eta jarraipena egiten ari da Espainiako Save the Children (SCE); horrez gain, Pobreziari Aurre Egiteko Programaren bidez, babesa ematen die familia horiei. Pandemia hasi zenetik urtebetera, SCEk honako txosten hau argitaratu du: **COVID-19aren urteurrena: zer diote familiek?** Espainiako hainbat lurraldetako 1.290 familiari egindako inkesta batean oinarritzen da txostena. Laburbilduz, **Euskadin artatzen ditugun 221 familietatik 141ek eman dizkiguten datuetatik abiatuta egin da txotena**, eta aukeratutako zenbait adierazleren bidez hainbat esparrutan jasotako informazioa aurkeztu da; esparru hauetakoa, bereziki: enplegua, etxebizitza, ongizatea emozionala eta hezkuntza. Emaitzek argi erakutsi dute desoreken bizkortzaile izan dela pandemia gure herrialdean, eta jada desoreka horiek nahiko maila altuetan zeuden COVID-19a etorri aurretik ere<sup>1</sup>.

Duela ia urtebete, krisi honek zekartzan arriskuei buruz abisu eman zuen Save the Childrenek, eta haurren eta nerabeen etorkizuna ziurtatzeko beharrezkoak ziren politika publikoen proposamenak egin zituen, jada pandemia osteko berreraikuntzan zer ikuspegi hartu behar zen hausnartzen hasita zeudenean; larrialdiko egoera hura epe luzeko ikuspegi batekin bateratzen zuen, atzean inor ez uzteko, haur bakar bat ere ez<sup>2</sup>.

Txostenari egin zaion eranskin honek azterketa puntual bat egiten du, bai Euskadin krisi ekonomiko eta sozial honen eraginak arintzeko euskal erakundeek ezarritako neurriez eta bai egoera zaurgarrian dauden familietako haur eta nerabeen bizitzari eta ongizateari buruz, pandemia hasi eta urtebetera. Neurri horien jarraipena egitea du helburu, bai eta konparazioak egitea eta gogoeta eta eztabaida sustatzea ere, haurren eta nerabeen bizitza hobetuko duten ekintzak gararazteko.

Dena den, argi adierazi behar da txosten honetan jasotzen diren neurriek ez diotela erantzuten alarma-egoera garaian euskal administrazio publikoek ezarritako neurrien azterketa zehatz bati; aitzitik, Euskadin Save the Childrenek babesten dituen familiei egindako inkestaren bidez lortutako emaitzetako esparru bakoitzean garrantzi handienekotzat jo direnak hautatu dira.

<sup>1</sup> Errenta baliokideari dagokionez, herrialde desorekatuenen artean bosgarrena izan da Espainia EBn 2019an, Gini indizearen arabera, eta Bulgaria, Lituania, Letonia eta Errumania baino ez ditu aurretik (Eurostat).

<sup>2</sup> Save the Children (2020). *Infancia en reconstrucción. Medidas para luchar contra la desigualdad en la nueva normalidad.*



## 2. EUROPAKO FUNTSAK AUKERA GISA

EBren aldetik, bultzatu egin da suspertzearekiko konpromisoa, pizgarri finantzario berrien sorta baten bidez: **Next Generation EU**; pandemiak eragindako kalte ekonomiko eta sozialak konpontzera eta lehiakorra eta aldi berean ekitatiboa izango den hazkunde-eredu berri baten oinarriak ezartzera zuzentzen dira funts horiek. Trantsizio berde eta digitalerako palanka gisa daude egituratuta funtsak, baina lehentasun-plano berean kokatzen dute etorkizuneko erronka horiei aurre egiteko pertsonak hornitu beharra. Horregatik, joan den abenduan argitaratutako funtsen erregelamenduan, lehentasunen artean ezartzen dira *‘hurrengo belaunaldirako politikak, haur eta gazteentzakoak, hala nola hezkuntza eta gaitasunen garapena’*<sup>3</sup>. Zutabe espezifiko hori txertatuz, haurren inbertitzeak duen garrantzia azpimarratzen da.

Ildo horretatik, *Next Generation EU* Funtsak aukera bakarra adierazten dute Euskadirentzat, etorkizuneko erronketarako pertsonak hornitzeko beharrezko erantzuna eman dezan, batik bat haurren eta gazteengan ardaztutako politiken bidez: hezkuntza, gaitasunen garapena eta haurren pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako borroka, besteak beste<sup>4</sup>.

Hortaz, txosten honetan biltzen diren proposamenak **Euskadi Next 21-26** programan aurreikusten diren inbertsioekin gauzatu daitezke, suspertze, eraldatze eta erresilientziarako inbertsioen programakoekin; Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiekin eta Euskadiko hiru hiriburuekin koordinatuta, programa hori helaraziko dio estatuko gobernari, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean txerta dezan. Aldi berean, Europara bidaliko da plana, Next Generation EU Funtsak eskuratzeko aukera izateko; zehazki, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparrukoak.

Testuinguru horretan, politika publikoen esparruko gure proposamenak Euskadi Next 21-26 programako osagaiekin bateratu ditugu honako dokumentu honetan, eta, horrez gain, palanka-erako politikekin eta estatuko gobernua landutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (‘España Puede’) osagaiekin zer erlazio dituzten ere adierazi dugu, bi planen esparru orokorrean nola ahoka daitezkeen erakusteko. Ahokatzeko hori ezinezkoa gertatu denean, Euskadi Next 21-26 programako osagaiak indartzeko Save the Childrenek identifikatu dituen aukerak biltzen dira, hala, funts europarren bidez finantzatu daitezkeen inbertsioak eta erreformak barnean har ditzan eta finantzatzekoak diren jarduketetan haurrei lehentasuna eman diezaieten.

Save the Childrenen, uste dugu ezinbestekoa dela Eusko Jaurlaritzak lehentasun osoa ematea haurrei eta nerabeei, Next Generation EU Funtsak gauzatu ahal izateko landuko duen suspertze-planean, Euskadi Next 21-26 programan haurrei zuzendutako politikei buruzko ildo estrategiko bat txertaraziz; haurren eskubideak bermatu nahi dira horrela, eta haurren pobrezia aurka borrokatu nahi da.

<sup>3</sup> 2020ko abenduaren 14ko 2020/2094 Erregelamendua (EB), Kontseiluarena, COVID-19aren krisiaren osteko susperraldia babesteko Europar Batasunaren suspertze-tresna bat ezartzen duena.

<sup>4</sup> 2020ko abenduaren 14ko 2020/2094 Erregelamendua (EB), Kontseiluarena, COVID-19aren krisiaren osteko susperraldia babesteko Europar Batasunaren suspertze-tresna bat ezartzen duena.




### 3. GIZARTE-BABESA ETA ENPLEGUA

Inkesta egin zaien 5 familietatik batean, heldu batek edo gehiagok lana galdu dute modu iraunkorren.

#### 3.1. TESTUINGURUA

COVID-19aren pandemiak osasunean eta ekonomian eragindako krisiaren aurretik, Euskadi, Espainia bezala, desoreka maila altuenak zituzten Europako lurraldeetako bat zen.<sup>5</sup> 2018an, Euskadiko biztanleen % 17,7 pobrezia-arriskuan edo gizarteaz baztertuta izateko arriskuan zegoen, eta 88.000 haurri eragiten zien horrek. Aurreikuspenen arabera, pobrezia jasateko arriskuan egongo diren biztanleak askoz gehiago izango dira.

Pobrezia-arriskuak eragin desberdina du adingabeen artean, horien familien ezaugarri sozial eta demografikoen arabera: arrisku hori handia da bereziki atzerritarren ardurapean edo langabe dauden pertsonen ardurapean dauden haurren eta nerabeen kasuan, bai eta familia gurasobakar amadunen kasuan ere. Ikuspegi horretatik, **haurrak dira pandemiaren eraginak gehien jasaten ari direnak**: Euskadin, pandemia aurretik, pobrezia larrian zeuden 15 urtetik beherako adingabeak 23.000 inguru ziren, eta, Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren arabera, elikadura-arazoak zituzten 18.850 inguruk. Aurreikuspenetan jasotakoaren arabera, haurren pobrezia moderatuari dagozkion tasek % 24 ingurukoak izaten jarraituko dute, eta guraso bakarreko familiei eragingo die bereziki; azken kasu horretan, % 33tik gorako pobrezia-balioetara iritsiko dira. Adingabeen eta biztanleria orokorraren artean dagoen pobrezia larriaren hedadurari dagokionez, diferentzia handienak dituzten lurraldeen artean dago Euskadi<sup>6</sup>.



1. grafikoa. Modu iraunkorren edo aldi baterako lana galdu duen heldu bat edo gehiago dituzten familien ehunekoa.

Pandemiak bat-batean desagerrarazi ditu zenbait lan, aldi baterako nahiz modu iraunkorren. Txosten hau egiteko Save the Childrenek bildutako datuekin bat etorrita, **inkesta egin zaien familien % 20 ingurutan, pertsona heldu batek edo gehiagok lana galdu dute, modu iraunkorren**, eta familien % 7,1ean, aldi baterako galdu dute lana pertsona heldu batek edo gehiagok.


<sup>5</sup> 2019an, herrialde desorekatuenen artean bosgarrena da Espainia, Gini indizearen arabera, EBren barnean; Errumania, Letonia, Lituania eta Bulgaria baino ez ditu aurretik; Eurostat.

<sup>6</sup> Euskadin, haurren pobrezia-aren hedadura lurralde honen aberastasunen arabera legokiokeena baino askoz handiagoa da, eta haurren pobrezia-tasak ere antzeko aberastasun mailako herrialdeetakoak baino dezente altuagoak dira.

Egoera horretan, lana galdu izana eta aldi berean lana bilatzeko ezintasuna izan dira familietan diru-sarrerak gutxitzeko arrazoi nagusia krisi garaian, eta beren ardurapean seme-alabak dituzten familia asko pobrezia-arriskuan edo gizartetik baztertuak izateko arriskuan jarri ditu horrek.

Bestalde, Save the Childrenek bildutako datuen arabera<sup>7</sup>, Euskadin pandemiaren ondorioei aurre egin ahal izateko dirulaguntzak eskatu dituzten Euskadiko familien ia erdiek (% 45) ez dute halakorik jaso oraindik.

- Bai
- Ez, baina izapidetzen ari gara
- Ez, ez dut inolako dirulaguntzarik jasotzen



2. grafikoa. Pandemia garaian eskatutako dirulaguntzetan familiek izan duten sarbidea.

### 3.2. EZARRITAKO NEURRIAK

## Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta bizitzeko gutxieneko errenta (BGE)

Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE), Euskadiko gizarte-babeseko neurri gisa, funtsezko mekanismo bihurtu da COVIDaren krisiari erantzun egokia ematen zaiola ziurtatzeko orduan, pertsona zaurgarrienen kasuan; pobrezia erlatiboan dagoen biztanleriaren % 26rengana iritsi da, eta pobrezia larrian dagoen biztanleriaren % 83rengana. Alarma-egoera deklaratu zenetik, DSBEren martxoko ordainketak aurreratzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak, baliabide gutxieneko familiei likidezia ziurtatu ahal izateko; funtsezkoa izan zen neurri hori hartzea, lehen aste haietako geldialdi ekonomikoan, familia askok beren diru-sarreraren iturria nola eteten zen ikusi baitzuten. Ildo beretik, abenduaren erdialdera, 459,5 milioi euro aurreratu zituen Eusko Jaurlaritzak, DSBEren ordainketa eta etxebizitza-prestazio osagarria bermatzeko; prestazio horietarako aurrekontua 10 milioitan handitu zuten 2020koarekiko<sup>8</sup>.

<sup>7</sup> Save the Children (2020). Inkesta: "Pandemiaren inpaktua haur zaurgarriengana Euskadin", GAD3 aholkularitza-etxeak egindakoa.

<sup>8</sup> Eusko Jaurlaritza (2020). 2021eko EAEko Aurrekontuen Proiektua 12.442M-ra helduko da, eta erabiltzeko aurrekontuan 770M-ko igoera izango du. 2020ko abenduak 15. <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2020/el-proyecto-presupuestos-cae-2021-asciende-12-442m/incremento-del-presupuesto-operativo-770m/consejo-gobierno-15-12-2020/>

COVIDaren krisi honi egoki erantzuten zaiola ziurtatzeko orduan neurri hori pertsona zaugarrientzat oinarrizkoa izan bada ere, estaldura maila ez da aski oraindik, batik bat beren ardurapean seme-alabak dituzten familien kasuan. Gainera, DSBE izapidetzean sortzen diren atzerapenek eta zailtasunek indarra kendu diote pobrezia larriaren eta gizarte-bazterketaren aurka duen ahalmenari.

Beraz, neurri hori ez da erabat hedatu, eta larrialdiari erantzuteko neurri izan nahi bazuen ere, ez da horrela jokatzeko ari. Euskal politika publikoen diseinua, oro har, oso neurri txikian da haurren aldekoa, eta onura handiagoak dakartzkiete pertsona helduei eta beren ardurapean adingaberik ez duten familiei haurrei, gazteei eta seme-alabekiko familiei baino. Pobreziari aurre egiteko ahalmen desberdin horren arrazoia DSBE eta etxebizitza-prestazio osagarriaren zenbatekoen diseinuan datza: konparazioz, babes txikiagoa ematen zaie tamaina handiagoko unitateei eta, bereziki, beren ardurapean seme-alabak dituzten familiei.

Estatuan, bizitzeko gutxieneko errenta (BGE) sartu da indarrean, eta, Euskadin beteko duen rola DSBEren osagarri izatea izango da, zenbateko txikiagoa dagokionez eta baldintza murriztaileagoak dituenez: DSBEk baino 20.000 bat familia gutxiagorengan iristen da<sup>9</sup>. Eusko Jaurlaritzaren aldetik prestazio horietan izan den aldaketaren kudeaketa automatikoki egingo da, baldintzak betetzen dituzten DSBEren onuradunei BGE esleituz, eta aldea ordainduz; horrek 50 milioi euro aurrezteko modua ekarriko du autonomia-erkidegoko aurrekontuan. Dena den, atzerapenak gertatu dira Espainiako gobernutik Euskadikora eskumen hori eskualdatzean, eta, beraz, neurri horren ezarpena atzeratu du.

## Bazterketaren esparruko funtsa- Inor Atzean Utzi Gabe

Pobreziari aurre egiteko eta pandemia garaian familia zaugarrienei laguntzeko neurri espezifiko batzuk onartu ditu Eusko Jaurlaritzak, besteak beste, *Inor Atzean Utzi Gabe* funtsa; bazterketari aurre egiteko funts bat da, 10 milioi euroko zuzkidura duena, eta zenbait programaren bidez bideratzen da, pandemiak sortu edo areagotu dituen bazterketa-egoerak leuntzeko. Funts honen bidez, 4.800 lagun ingururi lagundu zaio 2020. urtean, eta 2021ean beste 4.100 lagun ingururengana iristea espero da, nahiz eta hasierako helburua guztira 10.000 lagun ingururengana iristea zen<sup>10</sup>. Laguntza hauek ere zenbait hilabeteko atzerapenarekin ari dira iristen.

2020ko abenduan, funts hau luzatu egingo zela iragarri zen, eta 8,6 milioi euroko zuzkidura izango zuela, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Sailaren aurrekontua % 9,3 handitzeaz gain.

## Gizarte-larrialdietarako laguntzen aurrekontua handitzea

2020an, 16 milioi euro zuzendu zituen guztira Eusko Jaurlaritzak gizarte-larrialdietarako laguntzak hedatzera, 43,5 milioiko aurrekontura iritsi arte guztira. 2021ean, handitu egin da berriro ere aurrekontua, 15 milioi

<sup>9</sup> Eusko Jaurlaritzak (2020). *Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera indarrean sartzeak ez du eraginik izango DSBEaren onuradunen egoeran*. 2020ko maiatzak 19. <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzak/-/albisteak/2020/bizitzeko-gutxieneko-diru-sarrera-indarrean-sartzeak-ez-du-eraginik-izango-dsbe-aren-onuradunen-egoeran/>

<sup>10</sup> EITB (2020). *Jaurlaritzak 4,9 milioi euro bideratuko ditu baliabiderik gabeko familiei laguntzeka* 2020ko maiatzak 4. <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/ekonomia/osoal/7210857/49-milioi-euro-bideratuko-dituzte-baliabiderik-gabeko-familiei-laguntzeko/>





eurotan, eta 42,5 milioiko kopurura iritsi da horrela<sup>11</sup>. Udal mailan kudeatu dira laguntzak, eta ezohiko gastuetara zuzentzen dira, janzteko, prestakuntzako eta osasun-laguntzako oinarritzko beharretarako.

## Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen (ABEEE) osagarri diren neurri autonomikoak

Eusko Jaurlaritzak alarma-egoeran hartutako neurri nagusietako bat egoera zaurgarrienean eta soldata txikienekin zeuden langileen aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEE) osatzea izan zen. Gobernuak 12 milioi euro zuzendu ditu dirulaguntza horiek estaltzera<sup>12</sup>, eta 100 eta 150 euro arteko maximoetako zenbatekoak dira hileko –kontratuaren partzialtasunaren arabera–, 20.000 euro arteko oinarri arautzailea dutenen kasuan. Laguntza horien onuradunek, gainera, ordaindutakoaren arabera langabezia-prestazioaren titular izan behar dute. Horrez gain, Euskadin errolatuta eta lurralde horretan bizi behar dute laguntzen deialdia argitaratu aurretik (2020ko azaroaren 24a).

Euskal Enplegu Zerbitzuak, Lanbidek, emandako datuen arabera, 5.861 langile<sup>13</sup> jo ahal izan dute laguntza horietara Euskadin, eta hasieran aurreikusitako estalduratik oso urrun geratu direla adierazten du horrek, ABEEE prestazioa jaso arren egoera zaurgarrian zeuden 44.000 pertsonarengana iristea espero baitzen.<sup>14</sup>

Laguntza horien lehen deialdiak 2020ko uztailaren 1etik irailaren 30era bitarteko epea hartzen zuen, eta, epe horren ostean, Eusko Jaurlaritzak bigarren deialdi bat onartu zuen azaroan, koronabirusak eragindako krisiaren ondoriozko ABEEE haien hedaturari erantzuteko, 2021eko urtarrilaren 31ra arteko epean. Bigarren deialdi horrek 2020ko urria, azaroa eta abendua eta 2021eko urtarrila estaltzen zituen, eta 2021eko otsailaren 18ra arte eska zitezkeen<sup>15</sup>; beraz, ez dugu daturik oraindik horien irismena eta eraginkortasuna neurtzeko.

### 3.3. GURE PROPOSAMENAK

- Aurreko atalean aipatu diren gizarte-babeseko neurri eta laguntzak eskuratzeko izapideak bizkortzea eta hobetzea, eten digitalaren aurrean zaurgarrienak diren kolektiboek horiek eskuratzeko dituzten zailtasunak kontuan hartuta. Gainera, ezinbestekoa da laguntza horiek eskuratzeko bideei buruzko informazioa ematea, horien irismena zabaltzeko.

<sup>11</sup> Eusko Jaurlaritzak (2020). *Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bere sabai historikoa gainditu du, aurrekontua % 9,3 handitzean*. 2020ko abenduak 23. <https://www.euskadi.eus/albisteak/2020/berdintasun-justizia-eea-gizarte-politiketako-sailak-bere-sabai-historikoa-gainditu-du-aurrekontua-9-3-gehitzean/web01-s2enple/eu/>

<sup>12</sup> Lanbide (Euskal Enplegu Zerbitzua) (2020). *AEEEk osatzeko laguntzak*. <https://www.lanbide.euskadi.eus/orokorra/-/aeeek-osatzeko-laguntzak/>

<sup>13</sup> Lanbide (Euskal Enplegu Zerbitzua) (2020). *Lanbidek osagarria kobratzeko eskubidea duela jakinarazi die ABEEEko 5.861 langileri, eta urtarrilaren 31ra arteko luzapena prestatu du*. 2020ko azaroak 13. <https://www.lanbide.euskadi.eus/albisteak/-/albisteak/2020/lanbidek-osagarria-kobratzeko-eskubidea-duela-jakinarazi-die-abeeeko-5-861-langileri-urtarrilaren-31ra-arteko-luzapena-prestatu-du/>

<sup>14</sup> Lanbide (Euskal Enplegu Zerbitzua) (2020). *Eusko Jaurlaritzak aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baxuenak osatuko ditu*. 2020ko ekainak 18. <https://www.lanbide.euskadi.eus/albisteak/-/albisteak/2020/euskojaurlaritzak-aldi-baterako-enplegu-erregulazioko-espediente-baxuenak-osatuko-ditu/>

<sup>15</sup> El Correo (2020). *¿Cómo solicitar el nuevo complemento por ERTE para los afectados en Euskadi? 2020ko abenduak 1*. <https://www.elcorreo.com/economia/tu-economia/lanbide-ayudas-erte-complemento-euskadi-solicitar-20201201084221-nt.html>

## DSBE

- Euskadin haurren pobrezia-aren aurka borrokatzeko, premiazkoa da diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) erreforma egitea, beren ardurapean seme-alabak dituzten familiei babes handiagoa emateko eta zenbateko handiagoak zuzentzeko familia horiei, familia gurasobakar amadunen kasuan bereziki. Horrez gain, behar-beharrezkoa da gaur egun DSBE jasotzen ez duten eta pobrezia-arriskuan dauden milaka familiei prestazio hori eskuratzen laguntzea.
- **Nahitaezko izaeraz eta edozein egoeratan, haurraren interes gorena hartzea irizpidetzat,** beren ardurapean adingabeak dituzten familien kasuan **DSBE etetea edo amaitutzat ematea erabakitzeke orduan,** DSBEren esparruan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten familiei beste era bateko zehapenak ezarritik.
- **DSBEren esparruko etxebizitzaren eskakizuna egokitzea, bizitzeko gutxieneko errentara moldatzeko.** Diru-sarrerak bermatzeko errentarako, beharrezkoa da Euskadin gutxienez hiru urtez bizi izatea; bizitzeko gutxieneko errentarako, aldiz, nahikoa da Espainiako lurraldean urtebete bizi izatea. Eskakizun hori egokituz, gizarte-prestazio horien artean desorekak sortzea saihestuko litzateke, Euskadin hiru urte baino gutxiago bizi izan diren pertsonak aukera gutxiago baitituzte bestela. Pobrezia-ari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2018ko Inkestan jasotako datuen arabera, pobrezia larriaren atalasean dauden eta erroldatuta 3 urte baino gutxiago daramatzaten familiak 2.000 dira, eta horietatik 900ek soilik jasoko lukete bizitzeko gutxieneko errenta. Egoera horretan egongo liriteke 244 haur inguru.
- DSBE kobratzeko aukera errazteko, lehenetsuen barnean **kolektibo zaugarrienak bistaratzea eta txertatzea:** guraso bakarreko familiak, desgaitasunak dituztenak, genero-indarkeriaren biktimak eta eta salerosketa eta sexu-esplotazioaren biktimak izan diren pertsona umedunak.
- **DSBEen sarbidea izateko gutxieneko adina.** Dagokion foru-erakundearen bidez erabat babestuta dauden haur eta nerabe askok, 18 urte betetzen dituztenean, gizarteratzeko laguntza berezia soilik dute eskura, eta 337 eurokoa da laguntza hori. Diru kopuru hori ez da aski emantzipazio-prozesu baterako, eta, zenbait kolektiboren kasuan, gizarteratzeko arazo bihurtzen ari da.

## Haurrak hazteko laguntza

- **Familiaren ardurapeko seme eta alaba bakoitzeko prestazio berri bat onartzea.** Bizitzeko gutxieneko errenta onartuz autonomia-erkidegoaren aurrekontuan aurreztutakoa haurren pobrezia-ari aurre egiteko erabiltzea proposatzen dugu; horretarako, pobrezia erlatiboaren atalasean dauden familien kasuan, ardurapean duten seme edo alaba bakoitzeko berariazko prestazio bat sortu daiteke. Aldatu egingo litzateke prestazio horren zenbatekoa, familia bakoitzeko diru-sarreraren mailaren eta familia horretako haur eta nerabe kopuruaren arabera. Prestazio hori pobrezia erlatiboaren egoeran dauden familia guztiei esleitzea proposatzen dugu, DSBE jasotzen duten edo ez alde batera utzita; horrela, gizarte-babeseko beste prestazioetan sarbiderik ez duten eta beren ardurapean adingabeak dituzten familia zaugarrienak ere barnean hartuko liriteke. DSBEren osagarri gisa familien ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko prestazio hau emanaz, aurreikusten da ehuneko 1,7 puntu murriztuko litzatekeela Euskadin haurren arteko egungo pobrezia maila: % 23,9tik % 22,2ra. Haurren pobrezia larria, berriz, bi puntu baino gehiago murriztuko litzateke: % 8,4tik % 6,1era. Guztira, 9.000 haur inguru irtengo liriteke pobrezia larriko egoeratik.



## Enplegua

- Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen (ABEEE) osagarri diren laguntzak hedatzea proposatzen da, baldin eta estatuko gobernuak ABEEE horiek luzatzen baditu; betiere, langileen egoera aztertuz, eta beren ardurapean adingabeak dituztenei lehentasuna emanaz.
- ‘Enplegu-anezkak’ sortzea, langabezia kronifikatzea saihesteko. Euskadin, eskura dauden azken datuen arabera (2019), luzaroko langabezia-tasa (12 hilabetetik gorako epeari dagokiona) 4,8koa da<sup>16</sup>; luzaroko langabeen poltsa hori murrizteko neurriak lantzea proposatzen dugu, horrela, euskal ekonomiaren produktibitatea eta herritarren ongizatea sustatuz. Programa horrek onura ekar diezaike langabezian dauden 104.400 pertsonen % 60,1laguni<sup>17</sup>, eta COVID-19aren krisiaren ondorioz lana bilatzea zailagoa izango duten pertsonen.

### 3.4. INPLEMENTAZIOA

Proposamenak	Inplementazioa Euskadi Next 21-26 programaren bidez	‘España Puede’ izeneko Ekonomiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekiko erlazioa
<b>DSBERen erreforma eta hobekuntza</b>	<p><b>1. osagaia – Pertsonen osasuna eta zaintza.</b></p> <p>Onartzen du gizarte-zerbitzuek arreta, babesa eta laguntza eman behar dietela bereziki egoera zaugarrian dauden pertsonen, bai eta pandemiaren ondorio sozialei erantzun behar dietela, azaleratu daitezkeen egoerei aurrea hartu behar dietela eta horrelakoak hauteman behar dituztela ere.</p> <p>Osagai honek barnean hartzen du <b>GIZARTE.EUS+</b>; informazio digital pertsonalizatua, integrala eta eragingarria duen laguntza-sistema bat da, gizarteratzearen esparruan esku-hartze sozialak garatzeko. Erabilera libreko web-aplikazio bat da, borondatezkoa eta doakoa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari eta gizarteratzeak hartzen duen esparru zabalagoan (diru-sarreraren bermea, enplegua, etxebizitza, hezkuntza, prestakuntza, osasuna...) kasuen koordinazioa erraztuko duena (balioespena, diagnostikoa, orientazioa, jarraipena eta ebaluazioa).</p>	<p><b>Palanka-politika: 8.</b> Zaintzen arloko ekonomia berria eta enplegu-politikak.</p> <p><b>Osagaia: 22.</b> Zaintzen arloko ekonomiarako talka-plana eta gizarteratze politikaren suspertzea.</p> <p>‘Berrikuntza gizarte-zerbitzuen esparruan’</p>

<sup>16</sup> EUSTAT (2019). 16-74 urte bitarteko biztanleriaren iraupen luzeko langabezia-tasa, herrialdeka. 2010-2019.

<sup>17</sup> EUSTAT (2020). *Langabezia-tasa % 9,9koa da eta biztanleria landuna % 0,4 jaitzi da 2020ko lehen hiruhilekoan Euskal AEn.* 2020ko apirilak 23. [https://eu.eustat.eus/elementos/ele0017200/ti\\_langabezia-tasa--99koa-da-eta-biztanleria-landuna--04-jaitzi-da-2020ko-lehen-hiruhilekoan-euskal-aen/not0017296\\_e.html](https://eu.eustat.eus/elementos/ele0017200/ti_langabezia-tasa--99koa-da-eta-biztanleria-landuna--04-jaitzi-da-2020ko-lehen-hiruhilekoan-euskal-aen/not0017296_e.html)



***‘España Puede’ planaren 8. palanka-politika ez dago behar bezala islatuta Euskadi Next 21-26 programan. Beharrezkoa da I. osagaia, ‘Pertsonen osasuna eta zaintza’ deritzona, indartzea, digitalizazio-ekimenetatik harago gizarteratzeko politikak eta zainketak ere barnean har ditzan.***

**5. osagaia - Digitalizazioa eta berrikuntza**

**LANBIDE** Euskal Enplegu Zerbitzuaren **Eraldaketa Digitalerako proiektua:** LANBIDEren modernizazioa bilatzen du, zerbitzuen prestazioa hobetuz eta kudeaketa-prozesuei aplikatutako digitalizazioaren bidez; hala nola bitartekotza-, orientazio- eta prestakuntza-tresnen bidez, enpresei zuzendutako zerbitzuen bidez eta DSBEren bidez; eskatzailearen historia bakarraren bidez; eta pertsoneri eta enpresei zuzendutako online kanal bat garatuz.

Proiektu honek hainbat erreforma aurreikusten ditu, legegintzako neurri baldintzatzaileekin lotuta (Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari eta Bizitzeko Gutxieneko Errentari buruzko Legea, Euskal Enplegu Sistemaren Legea, LANBIDEren figura juridikoaren aldaketa, zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa eratuz).

**Palanka-politika: 5.** Ehun industrialia eta ETEak modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa suspertzea eta Espainia indartzea herrialde ekintzaile gisa.

**Osagaia: 12.** Espainia 2030 politika industrialia. ‘Industria eta zerbitzuetako espainiar ekosistemaren modernizazioa eta produktibitatea indartzea’.

**Enplegua**

**1. osagaia – Pertsonen osasuna eta zaintza.**

Onartzen du gizarte-zerbitzuek arreta, babesa eta laguntza eman behar dietela bereziki egoera zaurgarrian dauden pertsoneri, bai eta pandemiaren ondorio sozialei erantzun behar dietela, azaleratu daitezkeen egoerei aurrea hartu behar dietela eta horrelakoak hauteman behar dituztela ere.

Osagai honen barnean, **ELKAR-EKIN LANEAN proiektua** nabarmendu da, kalitatezko enplegu inklusiborako estrategia; barnean hartzen dituen estrategien barnean dago kalitatezko enplegu inklusiboa sortzea (gaur egungo enpleguei eustea eta aukera berriak sortzea, ehun ekonomiko lehiakor eta iraunkor batean).

**Palanka-politika: 8.** Zaintzen arloko ekonomia berria eta enplegu-politikak.

**Osagaia: 22.** Zaintzen arloko ekonomiarako talka-plana eta gizarteratzeko politiken suspertzea. ‘Berrikuntza gizarte-zerbitzuen esparruan’

	<p><b>2. osagaia – Bizialdi osoko ikaskuntza.</b></p> <p>Hemen aitortzen denez, pertsonok bizitzan zehar arlo profesionalean zein pertsonalean behar izan ditzakegun gaitasun eta ezaguerak etengabe garatzeko aukera ematen duen tresna eraginkor gisa ulertu behar da etengabeko ikaskuntza, motibazioa sustatzen duen herritartasun aktibo eta integraturako.</p> <p>Euskadin ekintzailetasuna sustatu eta indartzeko hainbat proiektu biltzen ditu barnean, hala nola Gazteak Ahalduntzeko Programa.</p>	<p><b>Palanka-politika: 8.</b> Zaintzen arloko ekonomia berria eta enplegu-politikak.</p> <p><b>Osagaia: 23.</b> Politika publiko berriak, lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako.</p> <p>‘Inklusio-politikak sustatzea, BGEren hedapenaren inguruan bideratutako laneratze-politikei erreparatuz batik bat’</p>
<p><b><i>‘España Puede’ planaren 8. Palanka-politika ez dago behar bezala islatuta Euskadi Next 21-26 programan. 2. osagaia, ‘Bizialdi osoko ikaskuntza’, indartu behar litzateke, gizarteratzeko eta laneratzeko definitutako politikak barnean hartzeko.</i></b></p>		
<p><b>Haurrak hazteko laguntza</b></p>	<p><b>1. osagaia – Pertsonen osasuna eta zaintza.</b></p> <p>Onartzen du gizarte-zerbitzuek arreta, babesa eta laguntza eman behar dietela bereziki egoera zaugarrian dauden pertsonen, bai eta pandemiaren ondorio sozialei erantzun behar dietela, azaleratu daitezkeen egoerei aurrea hartu behar dietela eta horrelakoak hauteman behar dituztela ere.</p>	<p><b>Palanka-politika: 8.</b> Zaintzen arloko ekonomia berria eta enplegu-politikak.</p> <p><b>Osagaia: 22.</b> Zaintzen arloko ekonomiarako talka-plana eta gizarteratzeko politiken suspertzea.</p> <p>‘Berrikuntza gizarte-zerbitzuen esparruan’</p>
<p><b><i>‘España Puede’ planaren 8. palanka-politika ez dago behar bezala islatuta Euskadi Next 21-26 programan. I. osagaia, ‘Bizialdi osoko ikaskuntza’, indartu behar litzateke, zaintzetan, lan-esparruko kontziliazioa babestean, kalitatezko gizarte-zerbitzuetako inbertsioan eta inklusio-politiketan oinarritutako ekonomia berriarkein lotutako neurriak barnean hartzeko.</i></b></p>		

## HEZKUNTZA


Inkestari erantzun dioten familien ia % 22k adierazi du beren seme-alabek hezkuntza-laguntza behar dutela, baina ez dira ari laguntza hori jasotzen.

### 3.5. TESTUINGURUA

Jatorri sozioekonomiko desberdineko ikasleen artean lehendik ere bazeuden bidegabekeriak are gehiago larriagotu ditu COVID-19ak, eta hezkuntzan lehendik zeuden desorekek ere okerrera egin dute horren ondorioz. Egoera horren aurrean, ikastetxeak ixteak eta horrelako neurriek, familia askok pairatu duten krisi ekonomikoak edo konfinamenduak berak ere zuzen-zuzenean eragiten diote hezkuntzari, eta haurren eta nerabeen artean hezkuntza-arrakala handitzea ekarri dute, bakoitzaren jatorri sozio-ekonomikoaren arabera.

Alde batetik, **ikastetxeak ixteak** eta antzeko neurriek denboran luze irauten duten ondorioak dituzte, eta eragina dute ikaskuntza-emaitzetan luzera begira, egoera zaurgarrienetatik datozen haur eta nerabeen kasuan batik bat. Gainera, konfinamenduan bat-batean ezarri zen urruneko hezkuntza ez zen izan hezkuntza presentzialaren ordezkoa, eta, areago, ikaskuntzan jatorri sozialak eragindako arrakala larriki areagotu zuten bai horrek eta bai baliabideen erabileran, gaitasun digitaletan eta etxeetan laguntzeko aukeretan sumatu ziren desberdintasunek ere. Ildo horretatik, hezkuntza telematikoak larriagotu egin zituen desorekak, modu kezagarrian, eta kontuan hartu behar da jada larriak zirela desoreka horiek pandemia aurretik ere.

Estimazioen arabera aurreko ikasturteko ikaskuntzan pandemiak izan duen inpaktu negatiboa kontuan hartuta, autonomia-erkidego askok zenbait neurri diseinatu dituzte ikasturte honetako ikaskuntzak indartzeko. Euskadiren kasuan, ikasturte amaiera arte hezkuntza presentziala bermatuta dagoen lurralde honetan, artatzen ditugun familiei galdetu diegu ea beren seme-alabek behar duten indargarririk edo aparteko laguntzarik, edota horrelakorik jasotzen ari diren. Haurren erdia baino gehiago laguntza mota hori jasotzen ari da, eskola-orduetan edo eskola-orduetatik kanpo. Dena den, haurren % 22 inguru ez da ari jasotzen laguntzarik, eta horien gurasoek uste dute egokia litzatekeela laguntza hori. Haurren artena, antzeko beste ehuneko batek ez ditu eskura izan neurri indargarriak, baina, gurasoen ustez, ez dira beharrezkoak.



3. grafikoa. 2020-2021 ikasturtean hezkuntza-laguntzak jasotzen ari diren haurren ehunekoak.

Gurasoen ekarpenetan jasotzen denaren arabera, haurren % 22 inguruk ez du motibaziorik ikasketetan, eta eskolara joateko gogo gutxiago erakutsi du. Konfinamenduko hilabeteekin lotutako nekea dela diote gurasoek, edota lotuta dagoela gerta litezkeen berrogeialdiekin, ikaskideekin sozializatzeko orduan dituzten mugekin, distantzia hartzeko arauarekin, kutsatzeko arriskuarekin, maskara erabili beharrarekin... Ikasketetako interes falta hori horrelako arrazoiekin lotzen dute.

Bestalde, bazen faktore sozioekonomiko garrantzitsu bat pandemia aurretik ere: haur eta nerabe zaurgarrienei eragiten dien eten digitala. Euskadin, **haurrak eta nerabeak bizi diren 10 etxetatik batean ez dute ordenagailurik edo Internetik**, edo ez bat eta ez bestea. Familia zaurgarrienen gertatzen da hori: pobrezia erreala pairatzen duten familien herenak ez du ez ordenagailurik eta ez Internetik, eta 5etik batek ordenagailua du, baina Internet falta zaio, edo alderantziz. Ongizaterik gabeko egoera bat bizi duten etxeetan ere pairatzen dute eten digitala, gainerakoek baino neurri handiagoan: % 12,1ek ez du ez ordenagailua eta ez Internet, eta 10etik batek bietako bat du baina ez bestea.<sup>18</sup>

Ikastetxeak itxita egon diren garaian haurrek beren ikasketekin jarraitzeko aukera izan zezaten ezinbesteko tresna bihurtu da Internet pandemian. Horregatik, ikasteko laguntza emateaz gain, ikasturte honetan ezarritako beste neurri bat familiak gailu elektronikoz hornitzea izan da. Guztira, inkesta egin zaien familietatik 23 familiak, % 15 baino zertxobait gehixeagok, jaso dute gailuren bat administrazio publikoetatik edo ikastetxeetatik.

Kontuan hartu behar dugu, aurreko horretaz guztiaz gain, pandemia aurretik ere desoreka handiak zeudela hezkuntzan. Euskadin, segregazio-tasa estatuko bigarren handiena da, PISA 2018 txostenaren arabera<sup>19</sup>. **Egoera zaurgarrian dauden 10 haurretatik 7k kontzentrazio maila altuko edo oso altuko ikastetxeetan ikasten dute**, eta eskolaz kanpoko jardura gutxi garatzen dira ikastetxe horietan, irakasleen inplikazio falta eta proiektu komun baten falta sumatzen da, eta baliabide gutxi dituzte. Kontzentrazio maila altuko ikastetxe gehienak publikoak dira: **10 ikastetxe publikotatik 9tan oso kontzentrazio maila altuak dituzte, eta bi ikasletatik bat familia zaurgarrietatik dator** (Espainian, hirutik bat).

### 3.6.EZARRITAKO NEURRIAK

#### Ikastetxeak ixtea

Pandemiari aurre egiteko hartu ziren lehen neurrietako bat izan zen eskolak ixtea. Horren ondorioz, eskola guztiak urrunetik eta online ematen hasi ziren, eta, horrez gain, familien esku geratu zen, neurri handi batean, hezkuntza. Eskolak ixte horrek berarekin ekarri zuen, gainera, **ikasteko denbora gutxitzea eta eskolarekiko lotura emozionaletatik aldentzea**. Jatorri eta maila sozioekonomiko desberdinetako ikasleen artean lehendik zeuden aldeak areagotu egin zituen horrek, eta, beraz, hezkuntzako berdintasunik eza, lehendik zetorren arrakala, handitu egin zen, eta eskola-porrota eta eskola garaia baino lehen uztea sustatu zituen.

<sup>18</sup> *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta* (2016).

<sup>19</sup> Save the Children (2019). *2018ko PISA txostenak ekitateaz dienez jakin behar deuzun guztia*. Euskadiko eranskina. 2019ko abendua. [https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/dossier\\_pisa2018\\_euskadi\\_eus.pdf](https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/dossier_pisa2018_euskadi_eus.pdf)

Bestalde, **urrutiko hezkuntzak desberdintasunak sortzen ditu ikasleen artean, eta eten digitaletik arago doaz desoreka horiek**: online erako hezkuntzara egokitzea ez ezik, zereginen zati handi bat etxetik egitea eskatzen du. Hezkuntzan desorekak sortzeko iturri berri bihurtu daiteke hori, ikasle guztiek ez baitute babes bera jasotzen beren familiengandik.

Euskadiren kasuan, 2020-2021 ikasturtearen hasieratik behin eta berriz esan izan du Hezkuntza Sailak Hezkuntzaren lehentasunezko erronka modalitate presentzialarekin jarraitzea dela ekainera arte<sup>20</sup>. Ikasgelak kirurgikoki ixten ari dira ikasleen artean COVID-19 zenbait kasu positibo agertu ahala, baina, hilabeteen joanean, ez dira iritsi Euskal Hezkuntza Sistemak 2020-2021 ikasturterako dituen ikasgela guztien % 1,5era (17.554 ikasgela dira guztira, 2 urtetik derrigorrezkoaren ondoko unibertsitateaz kanpoko hezkuntzara bitartean)<sup>21</sup>.

## Aukerak Suspertzen

Bazterketari aurre egiteko *Inor Atzean Utzi Gabe* funtsak **berariaz haurrentzat diseinatutako programa bat** landu du. *Aukerak Suspertzen* ekimenaren barnean, 'On Line eskola-errefortzua' programak (Save the Childrenek parte hartu du programa horretan, beste erakunde batzuekin batera) eskola-laguntzako jarduerak sustatu nahi izan ditu, ikastetxeak ixteak familia zaurgarrietako haurren izan ditzakeen eraginak ahal beste minimizatzeko.

Haurren eta nerabeen beharrak (ikasteko ohitura eta teknikekin, gaitasun digitalekin eta hizkuntza-gaitasunekin lotutakoak) estaltzera bideratuta dago programa, bai eta gurasoen beharrak asetzerarekin (seme-alabei etxeko lanak egiten laguntzeko gidaritza, hizkuntza-gaitasunak, gaitasun digitalak eta guraso-gaitasunak ikasketen esparruan). Hasiera batean, 1,3 milioi euroko zuzkidura zuen, eta *Inor Atzean Utzi Gabe* funtsaren bidez finantzatzen zen; baina Berdintasun, Justizia eta Gizarteko Politiketako Sailak 2020ko abenduan iragarri zuen programa iraunkor bihurtuko zela aurrerantzean, eta Familien Zuzendaritzaren aurrekontuan sartuko zela.<sup>22</sup>

3.000 haurren iristea zuen helburu programak<sup>23</sup>, baina ez da aski estaldura hori, Euskadin **pobrezia larrian dauden 15 urte arteko 23.000 haurretatik % 13rengana iritsiko bailitzateke soilik**.

## Uda hezitzailea

Birusaren beldurrez, autonomia-erkidegoetako administrazio eta tokiko administrazio gehienek bertan behera utzi zituzten udalekuak, udako kanpamenduak eta horrelakoak; beraz, **ez zen aukerarik izan ikastetxeen itxierak eta konfinamenduak haurren hezkuntzan, emozioen arloan eta arlo sozialean**

<sup>20</sup> Irekia (Eusko Jaurlaritza) (2021). Jokin Bidarraitz Hezkuntza sailburuari elkarrizketa Radio Euskadin. 2021ko otsailak 10 <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/66723-entrevista-consejero-educacion-jokin-bidarratz-radio-euskadi>

<sup>21</sup> Euskadiko ikastetxeetako egoera eguneratzea, hemen: <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/67907-covid-actualizacion-situacion-los-centros-educativos-euskadi>

<sup>22</sup> Eusko Jaurlaritza, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (2020). *Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bere sabai historikoa gainditu du, aurrekontuaren % 9,3 gehitzean*. 2020ko abenduak 23. <https://www.euskadi.eus/albisteak/2020/berdintasun-justizia-eea-gizarte-politiketako-sailak-bere-sabai-historikoa-gainditu-du-aurrekontua-9-3-gehitzean/web01-s2enple/eu/>

<sup>23</sup> Deia (2020). *Refuerzo educativo para reducir la brecha digital*. 2020eko apirilak 28.

<https://www.deia.eus/actualidad/sociedad/2020/04/28/refuerzo-educativo-reducir-brecha-digital/1034678.html>



**eragindako deskonexioa konpentsatzeko**, neurri batean bederen, eta “uda garaiko ahanztura” murrizteko. Salbuespenen barnean, Bilboko Udalaren kasua nabarmendu behar dugu, ikuspegi positibotik, bere eskaintzari eutsi baitzion eta lehenasuna eman baitzuen familia zaugarrienei.

Jatorri eta maila sozioekonomiko desberdinetako ikasleen artean lehendik zeuden aldeak areagotu egin zituen horrek, eta, beraz, hezkuntzako berdintasunik eza, lehendik zetorren arrakala, handitu egin zen, eta eskola-porrota eta eskola garaia baino lehen uztea sustatu zituen. Arazoa larriagotu egin da hirugarren olatuan, ikastetxe askok behera utzi baitituzte eskolaz kanpoko jarduerak 2020-2021 ikasturtean.

### 3.7.GURE PROPOSAMENAK

#### Ikasgela irekiak

- **Hezkuntza presentzialaren aldeko apustua egiten jarraitzea, haur eta nerabeentzat ingurune seguruak bermatuz, betiere.** Hezkuntza funtsezko zerbitzutzat har dadin eta ahalik eta presentzialena izango dela berma dadin eskatzen dugu. Pandemiari aurre egiteko kontrol-neurri gisa ikastetxeak ixteaz hartzen den erabaki orok oso kontuan hartu behar ditu osasun-arriskuak, baina kontuan hartu behar ditu, halaber, zer eragin dituen hezkuntzan, gizartean, kontziliazioan eta haur eta nerabeen osasun fisiko eta mentalean nahiz ongizatean.
- Osasun-baldintzek beste aukerarik uzten ez dutenean, **hezkuntza telematikorako jauzia pixkana egingo da, transmisio-tasa handiko guneetan, modu malguan eta tokian-tokian ardaztuta, adinaren eta ekitatearen irizpideari jarraiki;** kontuan hartuko dira beti ikasleen zaugarritasun sozialaren profila eta nerabeek eskola uzteko duten arriskua. Hezkuntza presentzialari emango zaio lehenasuna Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetan, bai eta konplexutasun sozial handiko ikastetxeetan ere; horrez gain, aurrez aurreko ikasketarako guneak eskainiko zaizkie ikasle zaugarrienei.

#### Eten digitala

- **Eten digitalak eragindako desorekak desagerraraztera bideratutako ekimenak eta programak sustatzen jarraitzea,** horien estaldura zabalduz haur eta nerabe zaugarrienengana irits daitezten. Bai *Aukerak Susperzen* programa eta bai Bilboko Udalak doako wifi sarea hedatzeko sustatutako ekimena jardunbide egokien adibide bikainak dira, ildo horretatik joko duten politika publikoak lantzeko abiapuntu gisa balio dezaketenak.
- **Familiei laguntzeko neurriak hartzea.** Eten digitala ez dagokio soilik gailu elektronikoetarako sarbideari edo konektibitateari; familien alfabetizazio digitalari ere badagokio. Familia zaugarrietako gurasoek ez dute jakiten beti nola kudeatu plataforma digitalak, eta egin beharreko zereginetara jotzea eta jarraipena egitea zaildu ditzake horrek, are gehiago adin txikieneko kasuan.
- **Egoera sozioekonomiko zaugarrian dauden familietako ikasleei,** hezkuntza-premia bereziak dituztenei edo ikasteko zailtasunak dituztenei batik bat, **zuzentzen zaizkien laguntza, babesa eta errefortzua lehenestea.** Zeregin hori ez dagokio soilik hezkuntzari, badagokio esparru psikosozialari ere. Horretarako, hezkuntzako orientaziorako eta orientazio psikopedagogikorako taldeak, laguntzako eta konpentsazioko irakasleak, Komunitaterako Zerbitzuetako Irakasle Teknikoak eta aniztasunarekiko



arretakoak indartzea proposatzen da, beharrezkoa denean, eta hori aurrera eramateko beharrezko baliabideez hornitzea ikastetxeak.

## Uda hezitzailea

- Aisialdiko hezkuntza-jardueren doako eskaintza inklusiboa indartzea eta areagotzea uda garaian, ikaskuntzak sendotzeko eta etenak gainditzeko, Erresuma Batuko eta Herbehereetako ereduak jarraituz.

## Hezkuntza-ekitatea

- **EAEko Hezkuntza Lege berrian arrazoi sozioekonomikoen ondoriozko eskola-segregazioaren aurkako neurriak txertatzea**, ikasle behartsuen kontzentrazioa murrizteko, hala nola plaza-erreserbak, ikastetxe bakoitzeko gutxieneko eta gehieneko ehunekoak, matrikulazio-bulego zentralizatuak eta bidezko eskolatze-puntuak.
- **Hezkuntzaren benetako doakotasuna bermatzeko mekanismoak ezartzea**, familiek ikastetxe publikoetan nahiz itunpekoetan jarduera osagarrietarako egin ditzaketen ekarpenetan maximoak finkatuz.
- Ikastetxei **baliabide gehigarriak emateko dauden programak berrikustea, hedatzea edota berriro planteatzea**, kontuan hartuta egoera ahulean dauden zenbat ikasle eskolatzen dituzten.
- **Behar handiena duten familiei laguntza ekonomikoa ematea, Haurreskoletako “0 tarifa” berrikusiz eta zabalduz**, Haurreskoletako tarifakazio sozialetan errenta-tarteak hedatuz, hezkuntza-ziklo horretako bekak berrikusiz, eta laguntzak onartzeko eta eskatzeko izapideak erraztuz eskolan egin daitezen, bai eta familia zaurgarrienei zuzendutako informazio-kanpainak eginez ere.
- **Haur Hezkuntzako lehen zikloa ikastetxeetan integratzeak ez duela eskola-segregaziorik sortzen ziurtatzea**, onarpen-araudiak eta bigarren zikloan sartzearekin duten lotura berriro aztertuz eta berdintasunezko onarpenerako baremoa erabiltzen dela eta itundutako etaparen hasieran aplikatzen dela (eta ez lehenago) ziurtatuz.

## Hezkuntza-azpiegiturak hobetzea

- **Hezkuntza-azpiegiturak hobetzeko plan bat garatzea, batik bat ikastetxe degradatuenei begira, barnean hartuta jangelak, klimatizazioa, isolamendua eta berdeguneak**, energetikoki eraginkorrak izaten daitezen eta udan instalazioak erabiltzeko aukera izan dadin ahaleginduz, Europako hezkuntza eta prestakuntzako 2021-2030 esparru estrategikoko ekintzetako baten ildotik.<sup>24</sup>

<sup>24</sup> Hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparruan Europar lankidetzan aritzeko esparru estrategiko bati buruzko Kontseiluaren Ebazpena, Hezkuntzako Europako Espazioari eta harago begira (2021-2030) (2021/C 66/01). “Hezkuntzako eta prestakuntzako azpiegitura iraunkorren eraikuntza sustatzea, eta lehendik dauden eraikinak berritzea («hezkuntza-azpiegituren ekologizazioa»)”.



### 3.8. INPLEMENTAZIOA


Proposamenak	Euskadi Next 21-26 programako inbertsio-ildoak	'España Puede' izeneko Ekonomiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekiko erlazioa
Eten digitala	<p><b>2. osagaia – Bizialdi osoko ikaskuntza.</b></p> <p><b>Euskal Hezkuntza Sistemako Digitalizazio Iraunkorrerako eta Sistema Adimendunetarako Plan Integrala:</b> esparru digital berri bat sustatu nahi du, ikastetxeei digitalizazioa hezkuntza-eraldaketarako eta etengabeko hobekuntzarako palanka gisa erabiltzen laguntzeko, bai Oinarrizko Hezkuntzan eta Batxilergoan eta bai Lanbide Prestakuntzan eta unibertsitateetan.</p> <p><b>5. osagian ('Digitalizazioa eta berrikuntza') biltzen diren esku-hartzeak ez dira aski eten digitalari aurre egiteko. Horregatik, berriaz eten digitalari aurre egitera zuzenduta dauden inbertsioak hartu behar dira barnean, haur eta nerabe zaurgarrienei eragiten baitie horrek, eta, horretarako, Euskadi Next 21-26 programako 2. osagaia baliatuko da: 'Bizialdi osoko ikaskuntza'. Ekipamendu egokia eman behar zaie haur eta nerabeei eta horien familiei, beren hezkuntza eta beren gaitasunen etengabeko garapena bultzatzeko, eta ez dira soilik ikastetxeak hornitu behar baliabide digitalez.</b></p>	<p><b>Palanka-politika: 7.</b> Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena.</p> <p><b>Osagaia: 21.</b> Hezkuntza-sistemaren modernizazioa eta digitalizazioa, eredu pertsonalizatu, inklusibo eta malgu batera jotzeko.</p>
Uda hezitzailea eta hezkuntza-ekitatearen aldeko proposamenak	<p><b>2. osagaia – Bizialdi osoko ikaskuntza.</b></p> <p><b>Behar-beharrezkoa da Euskadi Next 21-26 programako 2. osagaia ('Bizialdi osoko ikaskuntza') indartzea, digitalizaziotik harago joz hezkuntza-sistema modernizatzeke proiektuak barnean har ditzan eta, horrela, hezkuntza-eredu ekitatibo, inklusibo eta malgu batera eramango gaituen erreforma egiten dela ziurtatzeko; horrela, ez da atzean utziko haur bakar bat ere.</b></p>	<p><b>Palanka-politika: 7.</b> Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena.</p> <p><b>Osagaia: 21.</b> Hezkuntza-sistemaren modernizazioa eta digitalizazioa, eredu pertsonalizatu, inklusibo eta malgu batera jotzeko.</p>
Hezkuntza-azpiegiturak hobetzea	<p><b>6. osagaia – Hiri-habitata.</b></p> <p><b>Euskadiko Hiri Agendan (Bultzatu 2050) txertatutako Renove planen bidez, edo Egoera zaurgarrian dauden EAeko eremuetako hiri-berroneratze integralerako proiektuan txertatuz.</b></p>	<p><b>Palanka-politika: 1.</b> Hiri-agenda eta landa-agenda, despokatzearen aurkako borroka eta nekazaritzaren garapena.</p> <p><b>Osagaia: 2.</b> Etxebizitza zaharberritzeko plana eta eraginkortasunean oinarritutako hiri-berroneratzea, bizigarritasunerako baldintzak eta azpiegitura berde eta urdinen garapena landuz.</p>

## 4. OSASUNA

**Haurren eta nerabeen % 40,7k aldaketa negatiboak izan ditu egoera emozionalean pandemiaren ondorioz.**

### 4.1. TESTUINGURUA

COVID-19ak eragindako pandemiak eta itxialdiak beldur-sentimendua eta antsietate kolektiboa ekarri dituzte, eta kalte egiten diete horiek haurren eta nerabeen osasun fisikoari eta buru-osasunari eta, nola ez, helduenari. Bereziki kalte handia egin dio pandemiak Euskadiri. Inkestan familiek emandako informazioaren arabera, **Save the Childrenek artatzen dituen Euskadiko haurren eta nerabeen % 40,7k aldaketa negatiboak pairatu ditu bere egoera emozionalean, pandemiaren ondorioz.** Gehien aipatzen diren ondorio emozional eta psikologikoak estresa, urduritasuna, antsietatea eta beldurra dira.



4. grafikoa. Gurasoen ustez pandemia-egoerak negatiboki eragin dien haur eta nerabeen ehunekoa.


## Osasuna eta ongizate fisiko eta emozionala

COVID-19aren inpaktua handiagoa izan da beren ardurapean adingabeak dituzten familia-nukleoetan, are handiagoa pobrezia larrian daudenen kasuan. Birusaren kutsadurarekin haur eta nerabeek gutxiago sufritu badute ere, zenbait arazo fisiko pairatu dituzte sedentarisinoa areagotzearen, pantailen aurrean denbora gehiago pasatzearen, oso osasungarriak ez diren dieten eta loaren kalitateak okerrera egitearen ondorioz; horrek guztiak, gainera, obesitatea susta dezake, eta arnas edukiera galtzea eragin.

Bai pandemiak eta bai konfinamenduak eragin handia izan dute haur eta nerabeen osasunean eta ongizate emozionalean, bereziki, egoera okerrean daudenen kasuan. Narriadura emozional hori, gainera, fisikoa baino handiagoa izan da, eta sintomatologia depresiboa, insomnia, suminkortasuna eta akidura emozionala eragin ditu, besteak beste, horien buru-osasunean<sup>25</sup>.


<sup>25</sup> Osasun Ministerioa (2020). *COVID-19 y salud infantil: el confinamiento y su impacto según profesionales de la infancia*. [https://www.mscbs.gob.es/biblioPublic/publicaciones/recursos\\_propios/resp/revista\\_cdrom/VOL94/ORIGINALES/RS94C\\_202007064.pdf](https://www.mscbs.gob.es/biblioPublic/publicaciones/recursos_propios/resp/revista_cdrom/VOL94/ORIGINALES/RS94C_202007064.pdf)

Garbi ikusi da, halaber, COVID-19ak zer eragin izan duen haurren eta nerabeen familietako aisialdian, jarduera fisikoan eta etxe barruko nahiz kanpoko jolas garaietan izan diren eredu-aldaketetan. Gurasoek emandako datuen arabera, haurren erdiek baino gehiagok astean 1-5 ordu ematen dituzte kanpoko jardueretan, eta laurdenak 5-10 ordu ematen ditu astean. Hala ere, **haurren % 16,3 ez da ia kalera edo aire zabalera ateratzen.**



5. grafikoa. Hurrek kalean kanpoko aisialdian astean ematen duten denbora, ehunekotan.

Etxean garatzen duten jarduera fisikoari dagokionez, gurasoek eta zaintzaileek diote haurren % 84 ez dela ari jarduera fisikorik egiten etxean.



6. grafikoa. Jarduera fisikoa etxean egiten duten haurren ehunekoak, eta astean jarduera horietan ematen duten denbora.


## 4.2.EZARRITAKO NEURRIAK

### Elikadura osasungarria

Eusko Jaurlaritzak **jantokietarako laguntzak** bermatu ditu irakaskuntza-jarduera eten den denboraldian, eskola-jantokiak erabiltzen dituzten ikasleentzat, eta, horretarako, hilean banku-transferentzia bat egin du, 4€-

koa eskola-egun eta haur bakoitzeko. 57.000 ikasleri ekarri die onura neurri horrek<sup>26</sup>, eta, beraz, estaldura handia izan duela nabarmendu behar da. 2020-2021 ikasturterako, Hezkuntza Sailak bekak eta ikasketetarako laguntzak eskainiz jarraitu du, unibertsitatetik kanpoko mailetako ikasleak eskolatzeko<sup>27</sup>.

Dena den, puntu negatiboen artean, **laguntza hori udako hilabeteetara ez dela luzatu nabarmendu behar da**. Kezkagarria da hori, gaur egungo egoerak ezaugarri duen ezegonkortasun ekonomiko honetan, funtsezkoa baita haurren eta nerabeen nutrizio-beharrak betetzen direla ziurtatzea eta, beraz, udako hilabeteetan ez etetea laguntza horiek. Euskadin Save the Childrenek artatutako familien % 22,7k astean behin edo bitan baino ezin ditu jan haragia, arraina edo horien baliokideak.



7. grafikoa. Haurren haragi eta arrain-kontsumoa astean, ehunekotan

## Kirol-jarduerak eta aisialdiko guneak

Birusaren hedapena kontrolatzeko, zenbait neurri hartu ziren, ikastetxeak, berdeguneak, parkeak eta lorategiak ixtea, besteak beste, edota eskola-kirola bertan behera uztea; **haurren eta nerabeen oinarrizko eskubide batzuk murriztea ekarri du horrek**. Haur-parkeen kasuan, COVID-19aren bigarren eta hirugarren olatuetan aplikatutako neurri murriztaileekin lotuta, sarrerako ordutegiak murriztu edo erabat mugatu dira herri askotan, hala nola Santurtzin edo Etxebarrin, Bizkaian.

Horrez gain, Euskadin COVID-19ak eragin dituen bigarren eta hirugarren olatuetan aplikatutako murrizketen barnean, eskola-kirola bertan behera utzi da, COVID-19ak eragindako kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanletik 500ekoa edo hortik gorakoa duten udalerrietan, eta kalte egin die horrek 6 urtetik 16ra bitarteko haur eta nerabeei, beren osasun fisikoari eta ongizate emozionalari dagokienez.

Beraz, funtsezkoa da orain ere **jolaserako, kirolerako eta aisialdirako guneak berreskuratzea, haur eta nerabeen esku uztea eta erabiltzeko aukera ematea**, elkarren artean interakzio soziala

<sup>26</sup> Newtral (2020). *Becas comedor: así comen los niños en cada comunidad autónoma*. 2020ko maiatzak 6.

<https://www.newtral.es/becas-comedor-asi-comen-los-ninos-en-cada-comunidad-autonoma/20200506/>

<sup>27</sup> Zenbateko maximoa 712 eurokoa da, eta jantokiko egunen kourua (178 egun gehienez) eta eguneko 4 euroko prezio maximoa biderkatuz ateratzen da zenbateko hori.

ahalbidetzeko. Espazio horiek ixteak eragin handiagoa du egoera sozioekonomiko zaurgarrian dauden haurren; gainera, etxebizitzaren ezaugarriak ere (tamaina, espazio irekirik gabe eta, zenbaitetan, beste familia batzuekin partekatuta) faktore erabakigarriak izan dira konfinamenduan.

Neurri positiboen artean, nabarmendu behar da Bizkaiko Foru Aldundiak 2021eko martxotik *Egin Kirola* ekimena<sup>28</sup> abiarazi duela; 3 urtetik 13ra bitarteko haurrei kirol-jarduerak egiteko eskaintzen zaien plataforma bat da, online eta doan ematen dena. Oso garrantzitsuak dira horrelako ekimenak sedentarismoaren eraginei aurre egiteko, baina programa online izateak mugatu egin dezake jatorri sozioekonomiko ahulenerako haurren sarbidea, ez soilik eten digitalaren eraginagatik, baita eskaintzen diren kirol-jardueretarako espazio gutxiago izan dezaketelako ere.

## Buru-osasuna

Buru-osasunari dagokionez, Euskadin ez da jarri abian pandemiak haurren buru-osasunean dituen eragin negatiboak leuntzeko zuzeneko esku-hartzerik, nahiz eta haurrei kalte egiten ari zaiela erakusten duten ebidentziak baditugun.

### 4.3.GURE PROPOSAMENAK

#### Elikadura osasungarria

- **Jantokiko laguntzak zabaltzea**, eguneko otordu guztiak estaltzeko, baita uda garaian ere; halaxe egin dute udal batzuek udalerrietan, haurrek eta nerabeek beren esku elikagai osasungarriak eta kalitatezkoak dituztela bermatzeko, batez ere egoera zaurgarrienean daudenei begiratuta. Jantokien funtzionamendu segurua bermatzea inoiz baino beharrezkoagoa da une hauetan, familiek elikadura orekatua eskain diezaieten beren seme-alabei.
- Haur eta nerabeek **elikagai osasungarri eta kalitatezkoak eskura izateko bideak sustatzea**, arreta berezia jarrita diru-sarrerara gutxien dituztenengan, pisu gehiegiko pertsonak gehiago baitira esparru horretan. Horretarako, ikuspegi holistikoa hartu behar da, haurren eta nerabeen osasunerako kaltegarriak diren elikagaiak (ultraprozesatuak edo koipe eta azukre askokoak) kontsumitzeko pizgarriak atzera botatzeko eta, aldi berean, informazio gehiago eskainiz (adibidez, Nutri-Score sistemaren bidez produktuei etiketak aurrealdean jartzea orokortuz), ingurune eta bizimodu osasungarriak sustatuz, edo arlo honetako kanpainak eginez, batez ere haurrentzat eta nerabeentzat garrantzitsuak diren eremuetan (eskolak eta jantokiak) eta horien familien ingurunean.

#### Kirol-jarduerak eta aisialdiko guneak

- **Kirol-jarduerak eta aisialdikoak sustatzea, konfinamenduak, 'pantallismoak' eta eskola-kirolean etorri diren murrizketek eragindako sedentarismoak osasunari egindako kalteei aurre egiteko**, haurren eta nerabeen egunerokoan aisialdia txertatuz eta kirola segurtasun osoz egiteko eta beste haur batzuekin sozializatzeko espazio publikoetako sarbidea erraztuz.

<sup>28</sup> Bizkaiko Foru Aldundia (2021). *Egin Kirola ekimenak haurren eskura jarriko du kirola, modu erraz, dibertigarri, entretenigarri eta askotarikoan*. 2021eko martxoak 3. [https://web.bizkaia.eus/eu/web/area-de-prensa/berriak/-/news/detailView/21641?News\\_redirect=%2Fes%2Fweb%2Farea-de-prensa%2Finicio](https://web.bizkaia.eus/eu/web/area-de-prensa/berriak/-/news/detailView/21641?News_redirect=%2Fes%2Fweb%2Farea-de-prensa%2Finicio)



- **Haur eta nerabeen aisialdirako guneak, berdeguneak, parkeak, haur-parkeak, kirola egitekoak edota sozializaziokoak irekita egon daitezzen bermatzea**, segurtasun osoz, batez ere egoera zaurgarrienean dauden auzoetan edota berdegune eta parke gutxi dituzten guneetan.
- **Ikastetxeak eta kirol-instalazioak irekitzea eta egokitzea, ahal den guztietan, eskola-eguna amaitu ondoren jolas egiteko eta aisialdiko gune gisa**, batik bat maila sozioekonomiko baxua edo egoera zaurgarria duten ikasleak daudenean.
- Osasun-baldintzek beste aukerarik uzten ez badute, **kirol eta aisialdiko jarduerak sustatzea online eta doan, adin-tarte bakoitzaren arabera egokituta.**

## Buru-osasunaren zerbitzua

- **Haurrei eta gazteei zuzendutako Lehen Mailako Arreta Sistema eta Buru Osasunekoa indartzea**, osasunaren esparruko bi unitate horien arteko koordinazioa azpimarratuz eta pediatriako eta lehen mailako langileak prestatuz, haurtzaroan eta nerabezaroan sor daitezkeen jokabide-nahasmenduak goiz detektatu ahal izateko.
- **Lehentasun osoa ematea haur eta nerabeen ongizate psikosozialari**, hezkuntzaren esparruan hezkuntza emozionala indartuz eta buru-osasuneko arazoak goiz hautemateko estrategiak ezarriz.

## 4.4. INPLEMENTAZIOA

Proposamenak	Euskadi Next 21-26 programako inbertsio-ildoak	‘España Puede’ izeneko Ekonomiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekiko erlazioa
<b>Jantokiko bekak</b>	<b>1. osagaia – Pertsonen osasuna eta zaintza.</b>	<p><b>Palanka-politika: 6.</b> Zientziaren eta berrikuntzaren aldeko ituna. Osasun Sistema Nazionalaren gaitasunak indartzea.</p> <p><b>Osagaia: 18.</b> Osasun Sistema Nazionalaren gaitasunak berritzea eta hedatzea.</p> <p>‘Osasun-sistema nazionala berriro diseinatzea, herritarren beharrei erantzuteko eta etorkizuneko erronkak aurreratzeko, analisi eta prebentzioko gaitasun estrategikoak indartuz; talentu profesionala babestea eta sustatzea, gobernantza partekatua, kohesioa eta eraginkortasuna hobetuz [...]’.</p>
	<b>2. osagaia – Bizialdi osoko ikaskuntza.</b>	<p><b>Palanka-politika: 7.</b> Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena.</p> <p><b>Osagaia: 21.</b> Hezkuntza-sistemaren modernizazioa eta digitalizazioa, eredu pertsonalizatu, inklusibo eta malgu batera jotzeko.</p>





	<b>Behar-beharrezkoa da Euskadi Next 21-26 programako 1. osagaia (Pertsonen osasuna eta zaintza) eta 2. osagaia (Bizialdi osoko ikaskuntza) indartzea, haurrak eta nerabeak bereziki zaurgarriak diren talde gisa hartuta eta horien garapena eta ongizatea bermatzera zuzendutako ildo espezifikoak behar dituztela kontuan hartuta.</b>	
<b>Elikadura osasungarria</b>	<b>1. osagaia – Pertsonen osasuna eta zaintza.</b>	<b>Palanka-politika: 6.</b> Zientziaren eta berrikuntzaren aldeko ituna. Osasuneko Sistema Nazionalaren gaitasunak indartzea.  <b>Osagaia: 18.</b> Osasun Sistema Nazionalaren gaitasunak berritzea eta hedatzea. 'Osasun-sistema nazionala berriro diseinatzea, herritarren beharrei erantzuteko eta etorkizuneko erronkak aurreratzeko, analisi eta prebentzioko gaitasun estrategikoak indartuz; talentu profesionala babestea eta sustatzea, gobernantza partekatua, kohesioa eta eraginkortasuna hobetuz [...]'].
<b>Buru-osasunaren zerbitzua</b>	<b>1. osagaia – Pertsonen osasuna eta zaintza.</b>  Onartzen du osasun publikoak aurrez aurre dituen mehatxuei, herritarrek aurrean dituztenei, egokiro erantzuteko osasun-sistema indartu beharra dagoela.	<b>Palanka-politika: 6.</b> Zientziaren eta berrikuntzaren aldeko ituna. Osasuneko Sistema Nazionalaren gaitasunak indartzea.  <b>Osagaia: 18.</b> Osasun Sistema Nazionalaren gaitasunak berritzea eta hedatzea. 'Osasun-sistema nazionala berriro diseinatzea, herritarren beharrei erantzuteko eta etorkizuneko erronkak aurreratzeko, analisi eta prebentzioko gaitasun estrategikoak indartuz; talentu profesionala babestea eta sustatzea, gobernantza partekatua, kohesioa eta eraginkortasuna hobetuz [...]'].
	<b>Euskadi Next programako 1. osagaien, buru-osasunaren zaintza txertatzen duen osasun-estrategia bat hartu beharko litzateke barnean, pandemia-egoerak osasunari ekarritako mehatxu berrien artean aintzat hartu behar baita buru-osasuna. Bai 2021-2028 Osasun Plan berriak eta bai Osasun Publikoaren Lege berriak buru-osasunaren garapena eta sustapena landu behar lituzkete berriaz.</b>	
<b>Ikastetxeak, kirol-instalazioak, parkeak, lorategiak eta berdeguneak irekitzea eta egokitzea</b>	<b>6. osagaia – Hiri-habitata.</b>  Auzoetako hiri-espazioak eta ekipamenduak hobetu beharra dagoela onartzen du, batez ere auzo zaurgarrietan esku hartu beharra dagoela balioetsita.  <b>1. osagaia – Pertsonen osasuna eta zaintza.</b>	<b>Palanka-politika: 1.</b> Hiri-agenda eta landa-agenda, despopulatzearen aurkako borroka eta nekazaritzaren garapena.  <b>Osagaia: 2.</b> Etxebizitza birgaitzeko eta hiri-inguruneak berroneratzeko plana. '[...] eraginkortasunean oinarritua, bizigarritasun-baldintzak hobetzeko eta azpiegitura berdeak garatzeko'.

**Eskualdeko eta udalerriko kirol-azpiegiturak modernizatzeko programa,** Bizkaiko kirol-instalazioetan eta naturaguneetan garatzekoa. Kirol-instalazio guztiak 5G sistemekin hornitu nahi dira proiektu honen bidez, irekitako kirol-espazioak hedatu eta estali nahi ditu erabilera-ordu gehiago emateko, aldagelak hobetu nahi ditu; eta kirol-espazio naturalak seinaleztatu, beharrezkoak diren ekipamendu materialak ziurtatu, eta kirol-espazio natural garbi eta seguruak ziurtatu.

**2. osagaiak ('Bizialdi osoko ikaskuntza') hezkuntza-ingurunean kirol-jarduerak egiteko eta sustatzeko programak hartu beharko lituzke barnean, batez ere ikasle zaurgarrienak hartzen dituzten eta baliabide gutxien dituzten ikastetxeak moldatzeko eta hornitzeko.**

## 5. ETXEBIZITZA ETA POBREZIA ENERGETIKOA


**Inkestan parte hartu duten familien erdiak baino gehiagok zailtasunak izan ditu hipoteka edo alokairua ordaintzeko, eta % 68,1ek zailtasunak izan ditu argindarraren, berokuntzaren edo uraren oinarritzko hornidura-gastuei aurre egiteko.**

### 5.1. TESTUINGURUA

Etxebizitzaren ezaugarriek eta familien baldintza sozioekonomikoek pisu handiko eragina dute haur eta nerabeen bizi-kalitatean, ikaskuntzan eta osasun fisiko eta mentalean, are gehiago itxialdian. Etxebizitzaren ezaugarri txarrek eragin handiagoa dute baliabide gutxiko familietako haurrengan, eta, buru-osasunaren esparruan, depresioarekin, bakartzearekin eta antsietatearekin lotuta daude, besteak beste.

Enplegua galtzeak nabarmen murriztu ditu familia-errentak, eta COVID-19aren krisiaren aurretik ere mugatuak ziren jada errenta horiek; horren guztiaren aurrean, familia askok zailtasun handiak dituzte beren etxebizitzaren kostuei aurre egiteko edota, besteak beste, energia edo ur-hornidurako gastuak ordaintzeko. Gutxienez familien % 51,8k diote zailtasunak dituela edo izan dituela hipoteka edo alokairua ordaintzeko, eta % 68,1ek zailtasunak izan dituela argindarraren, berokuntzaren edo uraren oinarritzko hornidura-gastuei aurre egiteko.





8. grafikoa. Beren etxebizitzaren alokairua edo hipoteka eta etxeko oinarritzko hornidurak ordaintzeko zailtasunak izan dituzten edo dituzten familien ehunekoa.

Pandemia aurretik, pobrezia energetikoa arazo larria zen jada Euskadin; esaterako, % **9,6 lagunek ezin zuten eduki etxea tenperatura egokian 2018an**<sup>29</sup>. COVID-19ak eragindako krisi ekonomiaren ildotik, beren ardurapean seme-alabak dituzten eta pobrezia-egoeran dauden familien % 18k arazoak izan dituzte oinarritzko zerbitzuak ordaintzeko (argindarra, telefonoa eta ura, esaterako), Save the Childrenek bildutako datuen arabera<sup>30</sup>. Gainera, familien % 65ek beren energia-kontsumoa gutxitu beharra izan du, eta % 52k, berriz, berogailuen erabilera murriztu behar izan du.

## 5.2.EZARRITAKO NEURRIAK

### Alokairurako dirulaguntzak

Etxebizitzaren esparruan, **Etxebizitzako Gastuetarako prestazio osagarria** du Euskadik, eta etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren alokairu-gastuei aurre egiteko bidea ematen zaie egoera zaugarrienean dauden pertsoneri.

Neurri positiboen artean, **alokatzeko eta mikroredituak itzultzeko laguntza-programak** jarri zituen abian pandemia garaian Eusko Jaurlaritzak, COVID-19aren krisiaren ondorioz egoera ekonomiko zaugarrian zeuden errentarientzat<sup>31</sup>. Dena den, alokairu-kontratu baten titularra izatea eskatzen du horrek, eta, gainera, ezinbestekoa da eskaera egiten duena Euskadin bizi izatea laguntza eskatu aurreko garaian urtebete lehenagotik etenik gabe, eta eraginkortasunez ziurtatzea hori. **Eskakizun horiek onuradun izan daitezkeen pertsona asko uzten dituzte kanpoan**, nahiz eta horiek ere egoera prekarioan egon.

<sup>29</sup> *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta* (2018).

<sup>30</sup> Save the Children (2020). Inkesta: "Pandemiaren inpaktua haur zaugarriengana", GAD3 aholkularitza-etxeak egindakoa.

<sup>31</sup> Alokabide, Eusko Jaurlaritzak. *Etxebizitza librea: alokatzeko laguntza*. <https://www.alokabide.euskadi.eus/ayuda-alquiler-vivienda-libre/>

Gainera, **egoera ekonomiko zaugarrian zeuden Gaztelagun programaren onuradunentzat aparteko laguntza bat** jarri zuen abian Eusko Jaurlaritzak, eta soilik 2020ko apirila, maiatza eta ekaina hartzen zituen barnean neurri horrek.

## Hornidura eteteko debekua

Krisiaren eraginak murrizteko Ministroen Kontseiluak onartutako neurrietako batek debekatu egiten zien enpresei ordainagiriak une horretan ordaindu ezin zituzten bezeroei argiaren, uraren edo gasaren hornidura etetea. 2021eko maiatzaren 9ra arte luzatu da debeku hori.

### 5.3.GURE PROPOSAMENAK

#### Etxebizitza

- **Alokairu babestuko parkea handitzea Euskadin**, eta, esleipenak egitean, lehentasuna ematea pobrezia eta zaugarritasun-egoeran dauden eta beren ardurapean seme-alabak dituzten familiei.
- COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz egoera ekonomiko zaugarrian dauden errentariek alokatzeko eta **mikrokredituak itzultzeko** eskaintzen zaizkien laguntza-programei dagokienez, horietan sartzeko bete behar diren baldintzak berrikustea, egoera prekarioan dauden pertsonen eta, batez ere, beren ardurapean seme-alabak dituzten familiek horiek eskuratzeko aukera izan dezaten.
- **Guraso bakarreko familiek jasotzen dituzten laguntzak eta familia ugariari ematen zaizkienak parekatze, eta guraso bakarreko familien ziurtagiri espezifiko bat eratzea.** Familia horientzat baldintza espezifiko bat sortzea, alokatzeko laguntzetan onuradun gisa eta babestutako etxebizitzetarako sarbidean lehentasunezko kolektibo gisa bereizteko.
- **Cohousing ekimenak sustatzea familia gurasobakar amadunentzat.** Euskadiko familien % 9,2 familia gurasobakar amadunak direnez <sup>32</sup>, behar-beharrezkoa da errealitate horrekin bat datozen politikak diseinatzea. Aukera bat etxebizitza-tipologia berrien garapena bultzatzea izan liteke, *cohousing* deritzona, esate baterako, espazio komunak dituzten etxebizitza multzoei egiten diena erreferentzia. Tipologia hori ez da berria Euskadiko etxebizitza-politikan: 2019tik, Donostiako Txomin Enean garatu da Euskadiko lehen *cohousing* ekimen pilotua, pertsona helduei zuzentzen zaiena. Beraz, eredu hori guraso bakarreko familien beharretara egokitzea litzateke. Horretarako, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak lurzoru publikoa ematea.
- **Etxebizitzen bizigarritasuna hobetzeko ematen diren dirulaguntzen kopurua handitzea.** Kontuan hartu behar da pobrezia-egoeran dauden familien ehuneko handi batek etxebizitza jabetzan duela (hipotekarekin edo hipotekarik gabe), eta, beraz, politikak eragin argia izango lukeela etxe horietan. <sup>33</sup>
- **Hiri Berroneratze Integrala sustatzea EAEko eremu zaugarrietan (EEBEPE-PERTE), haurren ikuspegitik**, hiri-politikak gizarteratzearen alde jotzen duten ingurune jasangarri, osasuntsu eta seguruetara bideratuz. Etorkizunean benetan horrelako ingurune bihurtu daitezten, plan horiek haurrak eta nerabeak ahaldundu behar dituzte, horien diseinuan parte har dezaten eta, horrela, haien garapenean lagunduko duten guneak eratzen direla ziurta dadin.

<sup>32</sup> Eustat. *Inkesta demografikoa*, 2016

<sup>33</sup> Pobrezia-egoeran zeuden familien % 54 inguruk etxebizitza jabetzan zuten 2018an, 2018ko ECV inkestaren datuen arabera.



## Pobrezia energetikoa

- Adingabeak beren ardurapean dituzten Euskadiko familietan, **argi-hornidura, ur-hornidura eta gas-hornidura eteteko debekua** alarma-egoeraren indarralditik harago **hedatzea**.
- **Bonu sozialaren bidez (elektrikoa eta termikoa) jasotako zenbatekoak doitzea**, beren ardurapean seme-alabak dituzten familiek, batez ere guraso bakarrekoek, ahalik eta estaldura handiena dutela ziurtatuz.
- **Onuradun izan daitezkeenek egiaz bonu soziala eskuratzeko bideak sustatzea, baldintzen eta eskakizunen inguruan informazio gehiago emanaz**. Horretarako, energiaren inguruko informazio-puntuaren sarea hedatu behar da, administrazioen arteko lankidetzak sustatu behar da, onuradun izan daitezkeenei lagundu behar zaie administrazioetik, eta konpainia eta merkatuen (libreak eta arautuak) aukerei buruzko informazio garden eta ulergarria eskaini.

### 5.4. INPLEMENTAZIOA

Proposamenak	Euskadi Next 21-26 programako inbertsio-ildoak	'España Puede' izeneko Ekonomiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekiko erlazioa
<p><b>Etxebizitza</b></p>	<p><b>6. osagaia – Hiri-habitata.</b></p> <p>Etxebizitza-eredu klasikoa malgutu eta lehendik dagoena birgaitu beharra txertatzen du.</p> <p>Horrez gain, <b>Eusko Jaurlaritzaren 2020-2024 Gobernu Programak</b> etxebizitzarako eskubide subjektiboaren garapena eta % 100 alokairuan izango diren etxebizitzak sustapena hartzen ditu barnean; horrela, etxebizitza duin, egoki eta eskuragarri baterako sarbidea errazten zaie horrelakorik lortzeko beharrezko baliabiderik ez duten pertsonari. <b>Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren erregelamendu-garapena</b> eta bizigarritasun-dekretuari buruzko esparru arautzailea jasotzen ditu programak, eta <b>etxebizitza ordaintzeko laguntzak indartu</b> nahi ditu.</p> <p>Horretaz gain, lehendik dagoen etxebizitza-parkea ere sustatu nahi du, hauen bidez:</p> <p><b>Etxebizitzak eta egoitza-eraikinak osotasunean birgaitzeko Renove Programa</b> urteroko izaera duen aparteko laguntza-ildo bat da, etxebizitzak eta eraikinak modu</p>	<p><b>Palanka-politika: 1.</b> Hiri-agenda eta landa-agenda, despopulatzearen aurkako borroka eta nekazaritzaren garapena.</p> <p><b>Osagaia: 2.</b> Etxebizitza birgaitzeko eta hiri-inguruneak berroneratzeko plana. '[...] eraginkortasunean oinarritua, bizigarritasun-baldintzak hobetzeko eta azpiegitura berdeak garatzeko'.</p>



	<p>iraunkor eta integratzailean birgaitzera zuzendua, eta eraikin baten edo batzuen birgaitze-jarduketa integralak finantzatzen ditu, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera hobetzeko.</p>	
	<p><b>1. osagaia – Pertsonen osasuna eta zaintza.</b></p> <p>Bereziki egoitza-izaerako bizitegietatik baztertuta dauden kolektiboentzako zentroak irekitzea hartzen du barnean.</p>	<p><b>Palanka-politika:</b> 1. Hiri-agenda eta landa-agenda, despulatzearen aurkako borroka eta nekazaritzaren garapena.</p> <p><b>Osagaia:</b> 2. Etxebizitza birgaitzeko eta hiri-inguruneak berroneratzeko plana. ‘[...] eraginkortasunean oinarritua, bizigarritasun-baldintzak hobetzeko eta azpiegitura berdeak garatzeko’.</p> <p><b>Palanka-politika:</b> 6. Zientziaren eta berrikuntzaren aldeko ituna. Osasuneko Sistema Nazionalaren gaitasunak indartzea</p> <p><b>Osagaia:</b> 18. Osasun Sistema Nazionalaren gaitasunak berritzea eta hedatzea</p>
<p><b>Pobrezia energetikoa</b></p>	<p><b>6. osagaia – Hiri-habitata.</b></p> <p>Hiri-ingurunea berroneratzeko neurriak jasotzen ditu, pobrezia energetikorako arriskuari arreta berezia jarrita.</p>	<p><b>Palanka-politika:</b> 1. Hiri-agenda eta landa-agenda, despulatzearen aurkako borroka eta nekazaritzaren garapena.</p> <p><b>Osagaia:</b> 2. Etxebizitza birgaitzeko eta hiri-inguruneak berroneratzeko plana. ‘[...] eraginkortasunean oinarritua, bizigarritasun-baldintzak hobetzeko eta azpiegitura berdeak garatzeko’.</p>

## 6. METODOLOGIARI BURUZKO OHARRA

Txosten honetan, “COVID-19aren urteurrena: zer diote familiek?” inkestan jasotako informazioa aurkeztu da. Save the Childrenek egindako inkesta horretan, informazioa jaso da hainbat alorretan, aukeratutako adierazle jakin batzuekin. Arlo hauetan, zehazki: enplegua, etxebizitza, ongizate emozionala eta hezkuntza. Euskadin Save the Childrenek artatzen dituen familiek emandako datuak erabili bira bereziki xede horretarako, eta ahalegin berezia egin da aski informazio biltzeko eta datu garrantzitsuenak laburbiltzeko. Dena den, onartu beharra dago bildutako datuak ez daudela erabat osatuta, eta badaudela hutsune batzuk. Pandemiaren ondorioz gertatutako aldaketei buruzko informatzaile onenen artean lehentasuna aita-amei eman zenez, ez dugu haurren ekarpen zuzenik haien pertzepzioei eta beharrei buruz, ez eta etxe barruan eta eskolan pandemia-egoera nola bizi izan duten eta nola bizi duten azaltzen duen ekarpenik ere.

Bestalde, kontuan izan behar da zer baldintzatan egin den inkesta, datuak bananduta biltzeko modua mugatu baitute eta, beraz, espero baino gutxiago hartu baitira kontuan adinaren eta generoaren esparruko desberdintasunak. Hala ere, eta muga horiek onartuta, txosten hau aurrerapauso bat da pandemia-garaian Euskadin egoera zaugarrian dauden haurren eta familien egoeraren ikuspegi multidimentsionala eskaintzeko orduan.

### Euskadin egindako inkestaren oinarritzko datuak

Save the Childrenek 221 familia artatzen ditu guztira Euskadin. Estatuan egin den inkestaren barnean, 141 inkesta baliotun egin dira Euskadin. Espainiako Save the Childrenek autonomia-erkidego honetan artatzen dituen familien erakusgarri da lagina, eta  $\pm$  % 4,9ko lagin-errorea du, eta % 95eko konfiantza maila. Hauek izan dira inkestari erantzun diotenak:

Sexua	
Emakumeak:	% 85,11
Gizonak:	% 14,89

Adina	
18-24	% 0,71
25-29	% 4,96
30-39	% 51,06
40-49	% 34,75
50-59	% 8,51

### Familien ezaugarri soziodemografikoak

Inkesta egin zaien 141 familia horietatik % 54,3 familia nuklearrak dira; % 32,1 guraso bakarreko familiak, amadunak, eta % 8,6 familia zabalak dira, hau da, gurasoen gain, beste senide batzuk ere bizi dira familian, hala nola osaba-izenak edo aitona-amonak. Gainera, familien % 3,6tan, familia-nukleotik kanpoko pertsonak bizi dira beraiekin.

Etxe bakoitzeko haurren kopuruari dagokionez, familien % 46,4k bi seme-alaba dituzte; % 27,9k, hiru seme-alaba, eta % 12,4k, lau seme-alaba edo gehiago. Familien % 13,6k ume bakarra dute. Guztira, 335 haur dira, mutilak neskak baino zertxobait gehiago (% 50 eta % 48 hurrenez hurren). Ez dugu daturik adingabeen % 2,4ren sexuari buruz. Azkenik, familien % 86,5etan, gurasoetako inork ez du jatorriz espainiar nazionalitatea. % 7,1 kasutan, batek bai eta besteak ez, eta % 6,4tan, bien nazionalitatea espainiarra da jatorriz.



**Save the Children**

[www.savethechildren.es](http://www.savethechildren.es)